

INFORMAZIO OHARRA

Eusko Ikaskuntzak bere Kontseilu Errektoreko kideak berritu ditu

*Eusko Ikaskuntzaren Batzar Nagusiak lau kide berri hautatu ditu: Araba,
Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroarako ordezkariak*

Donostia, 2023ko ekainak 3. Larunbat honetan, ekainaren 3an, Donostiako Miramar Jauregian eta on line konexioan, Eusko Ikaskuntzaren urteko Batzar Nagusia izan da.

Lehenengo zatian, bazkideek 2022. ekitaldiko jardueren memoria onetsi dute, baita emaitzen balantzea eta kontua ere, haiek aplikatzeko proposamenarekin batera. Ondoren, erakundeko lehendakari Ana Urkizak, azaldu ditu erankudearen jarduera-ildo nagusiak eta 2023rako aurreikusitako lan-plana, dagokion aurrekontuarekin. Era berean, 2024ko udazkenerako aurreikusita dagoen Eusko Ikaskuntzen XIX. Kongresua prestaketaren berri eman du.

Galde-eskeen txandaren ondoren, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Kontseilu Errektoreko kide berriak hautatu dira:

Arabako ordezkari bezala, Izaskun Iriarte Irureta hautatu dute. Iriarte zuzenbideko lizentziaduna da, espezialitate juridiko-ekonomikoan, Nazioarteko Merkataritzako eta Integrazio Politiko eta Batasun Ekonomikoko masterrak ditu, eta Amsterdam School of International Relations-ko graduondokoa. Eusko Jaurlaritzako funtzionaria izan da eta Lurralde Antolamenduko sailburuordea. Gaur egun, Gasteizko Udaleko Lurralde eta Klimaren aldeko ekintza sailaren zuzendari orokorra da.

Bizkaian, Kontseilu Errektoreko kide izango da Mario Zubiaga Garate. Zuzenbideko lizentziaduna eta Politika eta Soziologiako doktorea. 1998az geroztik, EHUKo Kazetaritza eta Zientzia Politikoetako fakultateetan ematen ditu eskolak. Ekintza kolektiboari, parte-hartze politikoari, gizarte-mugimenduei eta abarri buruzko ikertzailea.

Kontseilu Errektorean Gipuzkoako ordezkari gisa izan da Jose Manuel Bujanda Arizmendi hautatua. Hizkuntzen Pedagogiako lizentziaduna eta Irakasletzako diplomaduna, institutu publikoetako irakasle eta zuzendaria izan da; Hezkuntzako ikuskaria; bi Diputatu Nagusiren

Idazkari Nagusi eta Eusko Jaurlaritzako bi sailburutzatako kabineteko buru.

Eta Nafarroako Foru Komunitatean, Eusko Ikaskuntzaren Kontseilu Errektoreko kide berria Anika Lujan da. Historian lizentziatua, Irakasle Eskolako Haur Hezkuntzarako gaikuntza du. Tuterako Argia Ikastolako irakaslea da. Senatari izan zen Nafarroan. 2018az geroztik, Nafarroako Euskararen Kontseiluko kide da, Foru Parlamentuak proposatuta.

Horrela, lurralde ordezkariak partekatuko dute Araban Asier Etxenikek eta Izaskun Iriartek, Bizkaian Zelai Nikolasek eta Mario Zubiagak, Gipuzkoan Manu Olariagak eta Jose Manuel Bujandak, eta Nafarroan, Isabel Elizalde eta Anika Luján. Eusko Ikaskuntzak eskerrak eman nahi izan dizkie Anjeles Iztuetari, Juan Luis Moraguesi, Xabier Alkortari eta Mikel Aranbururi, egindako lanagatik eta bere ekarpenengatik.

NOTA INFORMATIVA

Eusko Ikaskuntza renueva integrantes de su Consejo Rector

La Asamblea General de Eusko Ikaskuntza ha elegido las cuatro nuevas incorporaciones para Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra

Donostia-San Sebastián, 3 de junio de 2023. Este sábado, 3 de junio, en el Palacio Miramar de Donostia y en conexión online, ha tenido lugar la Asamblea General anual de Eusko Ikaskuntza.

En su primera parte, socios y socias han aprobado la Memoria de actividades del ejercicio 2022, así como el balance y cuenta de resultados junto con la propuesta de aplicación de los mismos. A continuación, la Presidenta de la institución, Ana Urkiza, ha expuesto las grandes líneas de actuación de la Sociedad y el plan de trabajo previsto para 2023 con su correspondiente presupuesto. Asimismo, ha informado de la preparación del XIX Congreso de Estudios Vascos previsto para el otoño de 2024.

Tras el turno de ruegos y preguntas, se han abierto las urnas para la elección de las nuevas personas integrantes del Consejo Rector en representación de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra:

En representación del territorio alavés ha resultada electa Izaskun Iriarte Irureta, licenciada en Derecho, especialidad jurídico-económica, masters de Comercio Internacional, de Integración Política y Comunitaria y Económica, y posgrado de Amsterdam School of International Relations. Ha sido funcionaria del Gobierno Vasco y Viceconsejera de Ordenación del Territorio. En la actualidad es Directora General del Departamento de Territorio y de Acción por el Clima del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

Por Bizkaia, integrará el Consejo Rector de Eusko Ikaskuntza Mario Zubiaga Garate. Licenciado en Derecho y Doctor en Ciencia Política y Sociología. Desde 1998 imparte en las facultades de Periodismo y de Ciencias Políticas de la UPV/EHU. Investigador sobre acción colectiva, participación política, movimientos sociales, etc.

Como representante de Gipuzkoa en el Consejo Rector, ha sido elegido

José Manuel Bujanda Arizmendi. Licenciado en Pedagogía de las Lenguas y Diplomado en Magisterio fue profesor y director de Institutos públicos; Inspector de Educación; Secretario General de dos Diputados Generales y Jefe de Gabinete de dos Consejerías del Gobierno Vasco.

Y por la Comunidad Foral de Navarra, es nueva integrante del Consejo Rector de Eusko Ikaskuntza Anika Luján Martínez, licenciada en Historia, con Habilitación para Educación Infantil de Magisterio. Profesora en la Ikastola Argia de Tudela. Fue Senadora por Navarra. Desde 2018 es miembro del Consejo Navarro del Euskera a propuesta del Parlamento foral.

De esta forma, compartirán vocalía territorial en Álava Asier Etxenike e Izaskun Iriarte, en Bizkaia Zelai Nikolas y Mario Zubiaga, en Gipuzkoa Manu Olariaga y José Manuel Bujanda, y en Navarra, Isabel Elizalde y Anika Luján. Eusko Ikaskuntza ha querido agradecer su dedicación y aportaciones a Anjeles Iztueta, Juan Luis Moragues, Xabier Alkorta y Mikel Aranburu, quienes ceden el testigo a las nuevas incorporaciones.